

Editora: Fermín Múnoz. Koordinatzailea: Mariasun Monzó. Aholkularia: Inaki Egusa Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Adoana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa: 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: 7k@sendinet.es.

# NORANTZA

# AGUSTIN HERNAN

## «Euskal prentsa idatziaren beharra sortu behar da Iparraldean»

Agustin Hernanekin, Lapurdiko Gure Irratikozuzendariarekin, Iparraldeko komunikabideei buruz hitz egiten aritu gara. Egungo egoera aztertu ondoren, etorkizunari begira ere mintzo izan gara, beti ere, Euskal Herria erreferentzia hartuta. Irratien eboluzioa dela eta «baikor» sentitzen da. Aldiz, telebista zein prentsa idatziak direla eta, «ezkor».

eta berauen etorkizuna direla eta, oso baikor sentitzen naiz, egoera pluralagoa delako. Momentu honetan hiru irrati euskaldun hauek ditugu: "Xiberoko botza" Zuberoan; "Gure Irratia", Lapurdin; eta "Iruñe-irratia". Behenafarroan. Duela urte batzuk, batzoko asmotan, indarrak elkartzen hasi ginen, eta egun elkarlanean ari gara. Irrati hauez aparte, lau irrati txiki ere martxan daude, lokalak baina.

baterra emititzen dugu eta igandean egun guztian. Azken datuak oso baikorrak dira. Entzulegoa handitu da. Eta datu hau elkarlan prozesuaren ondorio izan dela pentsatzen dugu. Gaur egun ez dago horrelakorik Euskal Herrian.

### KARMELE ELIZARAN

Hiru urte pasatu dituzu Iparraldeko komunikabideei lotuta, zein egoeratan aurkitzen dira haiek?

Prentsa idatzia egoera antide-mokratikoan aurkitzen dugu, plural-tasunik ez dagoelako. Frantziako Estatuko komunikabideek monopolio osoa dute. Egun, Sud-Ouest egunkaria (Correo Españolaren antzeko enpresa batena) eta La semaine du Pays Basque astekaria daude. Harez aparte, lau aldizkari tematiko publikatzen dira, tirada txikiokak. Hegoaldeko egunkariak testigantza moduan saltzen dira. Horregatik, Iparraldeko prentsa sortu behar dugu, profesionala, plurala, elebiduna eta erreferentzia Euskal Herria izanen duena.

rik. Iparraldeari begira. Eta irratia?

Hiru urteotan Radio France Pays Basque, Radio Bayonne eta Anglet irratia absorbatuak izan dira, hala eta guztiz, irratien egoera

Zertan datza elkarlan hori etorkizunari begira?

Duela urte batzuk elkarlanean gainera eztabaida sortu zen eta, honen ondorioz, Euskal Irratiaren elkarrekin da. Egunerorik dugu



Bob Edwe

### Eta telebista?

Telebista propiorik ez dugu. FR3 informazio lokala ematen saiatzen da, bost minutuko saioa (minutu bat euskaraz) emititzen du Iparraldeari buruz; ETBekin, aldiz, oso kritikoa naiz. Orain dela bost hilabete, zaharkuntza plana egin zuen denon dirua erabiliz, baina ez dute politika sendo-



Txillardegui

### Asmakizuna

Bilbon barri "Covadonga" izeneko litxarri-dendaren erretaketak, ondorio larriak ekarri ditu dagoeneko. Eta, batera, Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako indar politiko guztiak jarri ditu dantzan.

Prentsa-agentziek azaldu duteenez, "Covadonga" izeneko dendatxo hori, Sargento Valdetroncoren kalean kokatuta, PPKo Martine Pérez gau-zaindaria ahobera baten amona xahararren jabea da.

Beste kehetasun hau ere jakin da: José Martínez hori, Ullastresen garaiko aspaldian hildako "Guardia de Franco" baten biloba dela.

Partidu demokratikoez, berriro aspaldiko partez sendo elkarturik, 48 orduko epea eman zioten HBri; honek eztabaida basati hori publikoki gaitzes zezan.

Baina komunikatu hori epearen barruan etorri ez denez gero, PNVk eta EAK Lizarra-Garazi Akordioa alde batera utzi, eta, Ibarretxe-ren bitartez, Ajuria Enea-ko bilerara deitzea erabaki dute. Eta, heriz herri, azalpen-bilerak antolatzea.

PPK, PSOE eta UAK, beren aldetik, HBK litxarri-dendaren erreteta gaitzesteko Agirriñ kale-ratu ez duenez, Mitin Erraldoi baterako deia zabaldu dute. Mitina Donostiako Aneotan ospatuko da datorren uztailaren 18an. Autobusak etorriko dira Espainia guztiatik.

Besteak beste, beren partehartze iragarri dute lider politiko ezagun batzuek: Felipe González, Aznar, Fraga, Casinello, eta Múgica Herzog.

"Ermua vive y vivirá" izeneko Pregoia, Fernando Savater intelektual ezagunak prestatu du; eta Victoria Pregoik irakurriko du.

Asmakizuna hau da: zein talde politikok erabaki du Espainiako kale-kantoinetan txanpan-botilak barra-barra dohanik banatzea?

## AITZINDARIAK

